



Arartekoaren ebazpena, 2012ko ekainaren 11koa, Duranako Udalbatzako saioen aldizkakotasunari buruzkoa.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan Duranako Administrazio Batzarreko errejidore-buruak ez zituelako deitzen udalbatzako saioak legeak eskatutako gutxienerako aldizkakotasunarekin.
2. Duranako Administrazio batzarrak gure informazio eskaerari erantzun zion esanez, besterik gabe, arreta deitzen zela egindako eskaeraren formalismoak, izan ere, euren eskumeneko gaiak jorrazteko ez da beharrezkoa halako jardunbiderik. Batzordeak une oro ohikoak diren erabilerak eta ohiturak jarraituz jokatu du, garrantzitsua den edo ez den inolako gairik bideratzeke izan gabe. Batzordeko kideak, zuzenean hautatutako herritar gisa, ordainsaririk gabe, inolako arazorik gabe lan egiten egon dira, guztien ezagutzarekin eta gehiengoan lanarekin, Udalbatzako bilerak jorratu beharreko gaiak daudenean deituz.

Aurrekariak ikusita, ebazpena egitea erabaki dugu, ondorengoak kontuan harturik:

Gogoetak

1. Udalbatzak Arabako Lurralde Historikoan sustraitze handia duten erakunde publikoak dira, idatzi gabeko ohiturazko arau bidez arautu izan ohi direnak.

Hala eta guztiz ere, **Arabako Lurralde Historikoko Udalbatzen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak** zioen azalpenean argitzen duen moduan, erakunde horientzat oinarri izan diren ohiturazko arauak estatutu juridiko bati leku utzi diote. Bertan, konstituzioaren eskaeren araberrako arau orokorren ezarpena eta nahitaezko ezarpena argitzen dira.

Udalbatzek gutxienerako araudi hori kontuan hartu behar dute, euren antolakuntzan eta funtzionamenduan Ordenantzen Koadernoetan bildutako ohiturazko arauak mantentzen jarraitzeko kaltetan izan gabe.

2. Herritarrek erkidegoko gaietan duten zuzeneko parte-hartzearen adierazle nagusia herritarren biltzarra da. Adinez nagusi diren herritar guztiek parte hartzen dute organo horretan eta esleipen garrantzitsuak ditu Udalbatzek dituzten eskumenen artean.

Foru arauak, 20.1. artikuluan xedatzen du errejidore-buruak gutxienez hiru hilean behin deitu behar dituela herritarrak, beraz, eska daitekeen eta nahitaez bete beharreko funtzionamendu-araua da.





Eskaera horren aurrean, Administrazio Batzordeak, herritarren biltzarraren saioa ez deitzeko justifikazio gisa, jorrazteko inolako gairik ez duela eta formalismorik gabe funtzionatzen dutela adierazi du. Hala eta guztiz ere, hiruhileko oso batean erabakiren baten beharra duen gairik egon ez daitekeen arren, herri biltzarraren esleipenetako bat erregidore-buruaren eta Administrazio Batzordearen kontrola eta fiskalizazioa burutzea da (12 s) artikulua), beraz, beti egongo dira biltzarrari helarazi beharreko gaiak, hala nola, erabakiak abian jarri izana, diru-sarrera eta gastu gisako kontuak ematea, etab. Era berean, administrazio jardueraren inguruko galde-eskeak edo edozein herritarren informazio eskaera herritarren ordezkariak gehiengoko organoan aurkezteko aukera egon behar da.

Gai horren inguruan, Gaztela Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2000ko ekainaren 26ko epaia azpimarratu behar dugu, 1993ko maiatzaren 21eko Auzitegi Gorenaren Epaia aipatzen duena. Epaia horrek udalak behartzen ditu ohiko udalbatzak (biltzarrak) ezarritako aldizkakotasunaren arabera deitzera, izan ere, hala egin ezean, zinegotziei (herritarrei) gai publikoetan parte hartzea galaraziko litzaieke, kontuan hartuta organo horrek, beste esleipenen artean, *“udal gobernuko organoak kontrolatu eta fiskalizatu”* behar dituela.

3. Testuinguru horretan, Udalbatzen antolamenduak funtzionamendua arina eta beharrezkoak ez diren formalismorik gabekoa izan behar dela uste dugun arren, eskura dauden bitartekoen egitura eta eskasia kontuan hartuta, nahitaez errespetatu behar diren gutxienezko elementu batzuk daude, foru arauak eratu baitu nahitaez bete beharreko estatutu juridikoa.

Aurreko ataletan azaldutako gogoetak eta kexa ikusirik, ondorio hauek helarazten dizkizugu:

Ondorioak

Duranako Administrazio Batzarreko erregidore-buruak, dagozkion esleipenak betetzen, Arabako Lurralde Historikoko Udalbatzen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 14. eta 20. artikuluen babesean, herritarren biltzarraren saioak, gutxienez, hiruhilekoan behin deitu behar ditu.

